

## zakilixut

© Olariagak



Kristina Berasain | IRANTZU

## ATZEKOZ AUERRERA

# Monasterioa edo paradorea?

Irantzuko monasterioan paradore bat jartzeko asmoak iritzi kontrajarriak sortu ditu Deierri ibarrean

**M**onasterioa edo paradorea? Galdera horixe erantzun behar izan zioten berriki Abartzuzako herritarrek. Irantzuko monasterioak monasterio izaten jarraitu behar zuen edo paradore bihurtzea nahiago zuten, alegia. Galdera bakarra. Erantzun bakar batekin. Bata edo bertzea. Zuri edo beltz.

Franko dira, ordea, Deierri ibarreko biztanleek egiten dituzten galderak: Zertan datza paradorearen proiektua? Errespetatzen al du proiektu horrek monasterioak betidanik izan duen funtzioa? Eta zergatik ez da jakinarazi aipatu proiektua? Existitzen al da berez proiektua? Eta paradorea egitekotan, monasterioa bisitatu ahaliko dute paradorearen bezero ez direnek? Eta zergatik galdetzen zaie soilik Abartzuzako biztanleei? Ez al dute gainerako pertsona guztiek erabakitzeke eskubide bera?... Itaunketa amai-gabea da, eta biztanleek dituzten duda-muda ugariak

gauzak zuri edo beltz ez direlako lekuko zuzena dira.

Arestian aipaturiko galdera guztiak eta bertze bota zituzten abartzuzarrek erreferenduma-aren aurretik eginiko bileran. Gehienak informazio bila joan ziren Udalak deituriko elkarretaratzera. Udalak, berriz, ez zuela informaziorik, eta bozketan bertan behera gelditzea ere aipatu zuen. Badira, ordea, gauzak oso garbi dituztenak, eta horiek baietz, egin beharra zegoela erreferenduma. Emaizta haxe izan zen: %51ko abstentzioa. 468 herritarretatik 126k paradoreari baiezkotzea eman zioten, eta 96k ezezkoa.

Haxe da Abartzuzan eta inguruko herrixketan egun dagoen hizpide bakarra. Denen ahotan dago monasterioaren etorkizuna, eta gaiak dagoeneko hainbat ika-mika sortu ditu biztanleen artean. Udalak, bozketaren emaitza ikusita, «erabakitzeke ahalmenik» ez duela aitortu du. «Irantzuko monasterioaren etorkizuna Nafarroa-



JUAN CARLOS RUIZ / ARGAZKI PRESS

Irantzuko monasterioa, Abartzuzan.

ko Gobernuaren eta teatarren artean erabaki beharreko gauza da», erran du Isaac Diez alkateak. Bi zinegotzik dimisioa aurkeztu dute, eta paradorearen aldeko plataforma osatuko dute.

## Aurki hartu behar da erabakia

XII. mendeko harribitxia Nafarroako Gobernuarena da. Monasterioaren gozatzaileak, aldiz, 1943. urtetik honat eraikina erabili eta zaindu duten teatar fraideak dira. Horiek ez dute monasterioa uzteko asmorik agertu, eta ez badute nahi, ezin ditu inork bota. Fraideen iritziz, paradoreak ezabatu egingen luke monasterioak duen bete-beharra. Nafarroako Gobernu fraideekin bildu da sarritan, baina oraingoz negoziazioek ez dute aurrera egin. Erabakia datozen egunotan hartu behar da; izan ere, paradoreak biltzen dituen enpresak hilaren bukaera arteko epea eman dio Gobernuari erantzuteko.

Orain, zer gertatuko den esperoan. Eta gauza bat edo bertzea izan, monasterioa edo paradorea, Irantzura behin eta berriro joatera eragiten duen hori, modu batean edo bestean, errespetatzen dadin itzarotea baino ez da gelditzen.

## Udaberri honetan, EGUNKARIAK itsasoan murgilduko zaitu

Egin zaitez harpidedun eta Donostiako La Perla Talaso-Sport zentroan EGUNKARIA programaz gozatzeko aukera izango duzu DOAN:

- Sasoian Jartzeko Talaso Zirkuitua.
- 30 minutuko masajea, Aromaterapia eta guzti.
- Itsaso hileko lokatzekin eginiko estalki orokorra.

Epea: maiatzaren 17tik 31ra. Dituak bukatu arte.

- 08:00ak aurretik EGUNKARIA jasoko duzu etxean, lantokian, kioskoan...
- Harpidedunaren txakoa. Samarrik, afariak, egonaldiak, liburuak...DOAN
- Promozioetan abantailak.

La Perla  
Kontu. 400000. 1/2  
300000. 1/2  
Tel.: 943 45 88 54 - Fax: 943 46 99 17  
www.la-perla.net  
E-posta: info@la-perla.net

## Zure datuak

Izen-abizenak

NA

Helbidea

P.K.

Herria

Telefona

Jaioteguna

Lanbidea

K/k zbk.

Egunkaria

EGUNKARIA / HARPIDETZA  
Martin Ugalde Kultur Parkea • 20140 ANDOAIN  
Tel.: 943 300 222  
E-posta: harpidetza@egunkaria.com